Andoaingo Udala

SUSTAPEN EKONOMIKO, ENPLEGU ETA GAZTERIA

Kodea: 2022AKN20008

Baldintza Teknikoen Plegua **Pliego de Condiciones Técnicas**

Andoaingo haurrentzako balio anitzeko hainbat zerbitzu ematea

Prestación del servicio polivalente para la infancia de Andoain

Kontratu mota Tipo de contrato	**Zerbitzuak** / Servicios	**Prozedura** Procedimiento	**Irekia** / Abierto	**Esp. Kodea** Código Exp.	**2022AKN20008**
Lizitazio elektronikoa Licitación electrónica	☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No	**Tramitazioa** Tramitación	☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente		

Ezaugarri Teknikoak

1.- Kontratuaren Xedea

Kontratu honen xedea Andoaingo Udalak bere gazteria politikaren barruan Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzuaren (HBAZ) kudeaketa esleitzeko lehiaketaren baldintza teknikoak zehaztea da.

Zehazki, ondoko egitasmoak aipatzen dira: Ludoteka eta *"Goazen Jolastera"* Udalekuak. Continuum batean zerbitzua haurren beharretara egokitzen da urtean zehar, egitasmo horiek direlarik erantzuna ematen dutenak, besteak beste, behar horiei.

Kontratuaren exekuzioa zerbitzuaren diseinu, plangintza, antolaketa eta emate lanetan antolatzen da, plegu honetan ezarritakoarekin bat etorrita Udaleko Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Sailaren zuzendaritzapean.

2.- Justifikazioa. Gazteria politika.

2.1. Gazteria politika

Andoaingo udalak 2015. urtean udal Gazteria plana onartu zuen. Tresna hori udalaren zerbitzuen, ekintzen eta programen jarraibideak ematen dizkigun tresna malgu , ireki eta dinamikoa izan nahi du.

Gazteria plana garatzeko garaian, gaur egun inplementatzen ari den Gaztematika sistemaren erreferentzia markoa jarraitzen saiatu da. Sistema horren helburu eta aurrera begirako erronkak aintzat hartuz.

Gazteria planaren xede nagusitarikoa dugu haurrei, nerabeei eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan

Prescripciones Técnicas

1.- Objeto

El objeto del presente contrato es la determinación de las condiciones técnicas del concurso para la adjudicación de la gestión del Servicio polivalente de Infancia (SPI) por parte del Ayuntamiento de Andoain dentro de su política de juventud.

En concreto, se mencionan los siguientes programas: Ludoteca y Udalekus "Goazen Jolastera". En un continuum el servicio se adapta a las necesidades de los niños y niñas a lo largo del año, siendo estos proyectos los que dan respuesta, entre otras cosas, a esas necesidades.

La ejecución del contrato se organiza en los trabajos de diseño, planificación, organización y prestación del servicio, de acuerdo con lo establecido en el presente pliego, bajo la dirección del Departamento de Promoción Económica, Empleo y Juventud del Ayuntamiento.

2.- Justificación. Política de Juventud

2.1.- Política de juventud

En el año 2015 el ayuntamiento de Andoain aprobó el Plan Joven. Dicho instrumento se configura como una herramienta flexible, abierta y dinámica en relación a las pautas a seguir en los servicios, programas y actividades impulsados por el ayuntamiento.

A la hora de desarrollar dicho plan se ha tomado en cuenta en cuenta el marco de referencia Gaztematika, sistema que en la actualidad se quiere implementar.

Una de las finalidades del plan es facilitar con estabilidad y continuidad que las niñas, niños, adolescentes y jóvenes se desarrollen y disfruten de su

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa horiek dituzten bi zentzuetan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa; hau da, etapa honetan nor bere protagonista da, hiritartasun –eskubideei lotuta dago eta ehundura sozialaren behar-beharrezko zati bat da.
- Gaitasun pertsonalak eta gizarte loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanako emantzipazio-prozesu bat izateko, hau da, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa. Izan ere, heldutasunean lortzen baita erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizi-proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia maila handiena.

Udal gazteria planaren lehentasunen artean dugu

- Udala sistemako zerbitzuez hornitzea eta horiek koordinatzea, dagokien erakundeekin edo zerbitzu enpresekin elkarlanean.

Hori aurrera eramateko Andoaingo udalak gaur egunean bi zerbitzu eskaintzen ditu:

- Haurrentzako balio anitzeko zerbitzua
- Nerabeentzako balio anitzeko zerbitzua (Gazte Lokala)

2.2- Gaztematika. Gipuzkoako haurren eta Gazteen sustapenerako sistema

Andoaingo udalaren Gazteria Politika Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako Politika, esan bezala, Gaztematikaren barruan kokatzen da.

Gaztematikaren konfigurazio eta funtzionamenduari zentzua eta orientazioa ematen dizkioten printzipioak, balioak eta irizpideak hauek dira:

- Haurrak eta gazteak sustatzeko politikaren izaera sektoriala eta espezifikoa nahiz zeharkakoa eta integrala
- Berdintasuna, ekitatea eta aniztasuna
- Erantzukizun publikoa eta gizartearen parte-hartzea
- Koordinazioa eta sare-lana
- Proaktibitatea, hurbiltasuna, pertsonalizazioa,

infancia, adolescencia y juventud, en su doble dimensión:

- Como etapa vital con valor y significado en sí misma, en la que cada persona es protagonista de su vida, sujeto de derechos de ciudadanía y parte indispensable del tejido social.
- Como etapa que, mediante la maduración, aprendizaje y fortalecimiento de capacidades personales y vínculos sociales, hace posible un proceso progresivo de emancipación, es decir, una transición exitosa y satisfactoria a la condición adulta, en la que se alcanza la mayor autonomía para la toma de decisiones y su puesta en práctica en un proyecto personal de vida.

Entre las prioridades del Plan Joven municipal tenemos

- Que el Ayuntamiento se dote de los servicios del sistema de juventud, y la coordinación de ellos en colaboración con instituciones o empresas que gestionen los mismos.

Para llevar adelante todo ello el Ayuntamiento de Andoain ofrece dos servicios:

- Servicio polivalente para la infancia
- Servicio polivalente para adolescentes (Gazte Lokala)

2.2.- Gaztematika. Sistema de promoción para niños/as y jóvenes de Gipuzkoa

Como queda dicho, la política de juventud del ayuntamiento de Andoain se sitúa dentro del marco de referencia del sistema de promoción de niños/as, adolescentes y jóvenes, Gaztematika.

Los principios, valores y criterios que dan sentido y orientación al funcionamiento y configuración de Gaztematika son los siguientes:

- Carácter tanto sectorial y específico como transversal e integral de la política de promoción infantil y juvenil.
- Igualdad, equidad y diversidad.
- Responsabilidad pública y participación social.
- Coordinación y trabajo en red.
- Proactividad, proximidad, personalización,

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

jarraipena eta prebentzioa
- Jakintzan oinarritutako kalitatezko esku hartzea

Gaztematikak, hurbileko zerbitzuak eskainiz eta zuzeneko arretaren bidez (horretarako dauden kanal desberdinak erabiliz), haurren, nerabeen eta gazteen beharrei eta eskaerei erantzuten die. Beste esparru eta sistema batzuekin lankidetzan aritzea eta sarean lan egitea ere bultzatzen du.

3.- Zerbitzuaren xedea eta ezaugarriak

HBAZ zerbitzua, publikoa da, herriko haur guztientzako erreferente izan nahi duen gizarte hezkuntzako udal zerbitzua.

Zerbitzuaren eskaintza hartzaileen beharretatik eta interesguneetatik abiatuta osatuko da eta haien parte hartzea sustatuko da antolatze maila guztietan.

Haurrentzako zerbitzuak koherentzia eman nahi dizkie toki-eremuko haurrentzako proposamen guztiei. Haurizaera errespetatzen duen ikuspegi batetik, haurrentzako zerbitzuak haurren egungo errealitatea hobeto ezagutzea eta haien eratzea ahalbidetuko du.

HBAZk hezteko asmoa du eta horrela definitzen dugu:

- Balio-anitzeko proposamena da. Zerbitzuak, haurra bere osotasunean eta konplexutasunean hartzen du pertsonaren garapen integrala lortzeko.
- Partaidetzazko egitura bat da. Haurrek aktiboki parte hartzen dute zerbitzuan; beren inguruko errealitatea ezagutu eta protagonista izan daitezen lan egiten da.
- Sustapeneko zerbitzua da, aukerak (laguntza, dinamizazioa, ikaskuntza, garapena, loturak) sortzen dituena.
- Komunitatearen parte da. Haurrentzako zerbitzua herriaren / auzoaren dinamikan sartuta eta beste eragile eta talde batzuekin harremanetan dago eta elkarrekin lan egiten du.

Hauek dira zerbitzua osatzen duten elementuak:
- Ekipamendua, haurrak egoteko eta jolasteko toki bat eta erreferentzien gune nagusia.
- Eskaintzen diren jarduerak eta ekintzak,

continuidad y prevención.
- Intervención de calidad y basada en el conocimiento.

Gaztematika responde a través de unos servicios cercanos y una atención directa (a través de los diferentes canales existentes para ello) a las necesidades y requerimientos de los niños/as, adolescentes y jóvenes y posibilita a su vez, la colaboración y el trabajo en red y la colaboración con otros ámbitos y sistemas.

3.- Finalidad del servicio y características

El Servicio polivalente para la infancia (SPI) es un servicio público, un servicio de educación social de referencia para todos/as las/os niñs/os del municipio.

La oferta del servicio se confeccionará partiendo de las necesidades y áreas de interés de las/os destinatarias/os y se incentivará su participación en todos los niveles organizativos.

El servicio para la infancia pretende dar coherencia a todas las propuestas para niñas y niños del ámbito local. Desde una perspectiva respetuosa con el carácter infantil, el servicio para la infancia permitirá un mejor conocimiento y conformación de la realidad actual de los niños y niñas.

El SPI tiene una finalidad educativa y se define del siguiente modo:

- Se trata de una propuesta polivalente. El servicio toma a la niña/o en su totalidad y complejidad con el objeto de lograr un desarrollo integral del mismo/a.
- Se trata de una estrucutura participativa. Los/as niñas/os toman parte activa en el servicio; se trabaja para que sean conocedores y partícipes de su entorno.
- Se trata de un sistema de promoción, generador de oportunidades (ayuda, dinamización, enseñanza, desarrollo, vínculos)
- Es parte de la comunidad. El SPI está integrado en la dinámica del municipio, en contacto con otros agentes con los que colabora y trabaja.

Estos son los elementos que conforman el servicio:
- El equipamiento. Un lugar de estancia para los/as niñas/os y espacio de referencia

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

ekipamenduan nahiz beste espazioetan (kalean edo sare sozialetan adibidez).

- Harreman eragingarri baterako hezitzailez osatutako profesional talde bat.

Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arretaren tokiko sarean txertatzen da. Sare horren baitan era koherente eta koordinatuan lan egin behar du.

Haurrek behar multzo dinamiko bat dute (biologikoak, afektiboak, errealitatea ulertzekoak eta sozialak), eta horiek arreta behar dute, oraina eta etorkizuna izateko. Haurrek autonomia garatzen duten bitartean, ingurune onuragarri bat behar dute, babestuak, estimatuak eta lagunduak sentiaraziko diena.

HBAZren xede nagusia Andoaingo haurren beharrei erantzuna ematea da. Beharrez hitz egitean, haurra eta bere ingurunearen arteko mendekotasun-harremanaz eta, aldi berean, norbanakoak ingurune hori eraldatzeko duen ahalmenez ari gara.

Gaztematikak, besteak beste, honako behar hauek hautematen ditu:

- Babesa, errespetua eta beren giza duintasunaren aintzatespena izatea.
- Ondo pasatzea eta bizitzaz gozatzea.
- Beren familiako, taldeko eta komunitateko ingurunearekin dituzten harremanen bitartez, maitasuna eta estimazioa jasotzea.
- Pertsona gisa beren burua ezagutzea eta beren ingurunea ulertzea.
- Erabakiak hartzea.
- Adieraztea eta parte hartzea.
- Beren bizitzako protagonista sentitzea. Beren autonomia pertsonala eta komunitatean duten integrazioa babestea eta sustatzea.

Zentzu honetan, hiru taldetan bana ditzakegu haurren beharrak:

- Nortasun pertsonalaren garapenerako beharrak, hau da, autonomia eta ahalduntzearekin lotutakoak.

principal.

- Las actividades y programas que se ofertan tanto en el propio equipamiento como en el exterior (en la calle o en redes sociales, por ejemplo).
- Un grupo profesionalidado de educadores/as que trabajan de manera influyente el aspecto relacional.

La atención prestada tanto a niño/as, adolescentes y jóvenes se integra dentro de una red municipal. El trabajo a realizar en relación a esa red ha de ser coordinado y coherente.

Los niños y niñas tienen un conjunto dinámico de necesidades (biológicas, afectivas, de comprensión de la realidad y sociales) que necesitan atención para tener presente y futuro. Mientras los niños y niñas desarrollan su autonomía, necesitan un entorno favorable que les haga sentirse protegidos, apreciados y apoyados.

La finalidad prioritaria del SPI de Andoain es la de dar una respuesta a las necesidades de los/as niñas/os de Andoain. Al hablar de necesidades nos referimos , a las realciones de dependencia del niño/a con su entorno y, a su vez, nos referimos también a la capacidad del individuo de transformar ese entorno.

Desde Gaztematika, entre otras, se perciben las siguientes necesidades:

- Recibir protección, respeto y reconocimiento de su dignidad humana.
- Pasarlo bien y disfrutar de la vida.
- Recibir cariño y aprecio a través de sus relaciones con su entorno familiar, grupal y comunitario.
- Conocerse a sí mismos como personas y comprender su entorno.
- Toma de decisiones.
- Expresión y participación.
- Sentirse protagonistas de su vida.
- Apoyar y promover su autonomía personal y su integración en la comunidad.

En este sentido podemos situar en tres grupos las necesidades de los/as niñas/os:

- Necesidades relacionadas con el desarrollo personal, es decir, las relacionadas con la autonomía y el empoderamiento.

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

- Garapen sozialerako beharrak, gizartean toki aktiboa izateko gaitasunak bermatzeko.
- Izaera instrumentala duten beharrak; eginbeharrak betetzea, mugak jartzea, usadio eta ohiturak bereganatzea, beste kulturak ezagutzea eta errespetatzea…

Zerbitzuak ondorengo ekintza-arloak eskainiko ditu:

- Informazioa: Informazioa funtsezko tresna da, hartzaileei arlo edo sistema guztietan (cultura, osasuna, gizarte zerbitzuak,…) beren eskura dituzten baliabide eta aukerak baliatzen laguntzeko. Informazio erabilgarria, eraginkorra, esanguratsua eta antolatua izango da, beti ere, beraien interesen gaiei buruzkoa.
- Orientazioa: Orientazioak haur laguntza ematen die, dituzten aukerak ezagutu ditzaten, hautabideak identifika ditzaten eta beraien bizitzako hainbat alderdiri buruzko erabakiak har ditzaten. Zenbaitetan, pertsona horren beharrari hobeto erantzungo dion beste eragile edo instantzia batera bideratuko da.
- Bidelaguntza: Bidelaguntza, nolabaiteko egonkortasuna eta jarraitutasuna duen laguntza eta jarraipen harreman bat da, haurrek, nerabeek eta gazteek erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak eratzeko helburua duena.
- Aisia hezitzailea: Aisi hezitzailea haurren eta nerabeen astialdian egindako esku hartze bat da, jolasezkoa eta atsegina izanik, laguntza harreman baten bidez bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak hartzea edo garatzea lortzen duena.
- Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak: Haurrek eta nerabeek zerbitzuei eta beren bizitzako beste arlo nabarmen batzuei buruz iritziak adierazteko, proposamenak helarazteko, erabakiak hartzeko, ardurak hartzeko, bakarrik edo besterekin batera kudeatzeko, eta neurri batean kontrola egiteko benetako aukerak sortzea eta dinamizatzea dakar.
- Sorkuntzarako eta produkziorako bideak: Haurrek eta nerabeek beren sortze eta ekoizte ahalmena indartu eta bideratuko dieten jarduera eta proiektuak garatu eta ikustarazteko benetako aukerak sortzeaz eta dinamizatzeaz ari gara

- Necesidades relacionadas con el desarrollo social, contando con un espacio activo en la sociedad donde pueda desarrollar sus competencias.
- Necesidades de carácter instrumental; cumplimiento de las obligaciones, establecimiento de límites, asumir usos y costumbres, conocimiento y respeto a otras culturas,…

El servicio habrá de tener en cuenta estas áreas de actuación:

- Información: La información es una herramienta clave para facilitar el acceso de los destinatarios/as a las herramientas y recursos puestos a su disposición en todos lo ámbitos y sistemas (cultura, sanidad, servicios sociales,...). Se trata de facilitar información útil, efectiva, significativa y de manera organizada, sobre temas o asuntos de interés.
- Orientación: La orientación proporciona ayuda a niños/as para que puedan acceder a oportunidades, identificar alternativas y tomar decisiones en relación a diferentes aspectos de sus vidas. Una persona puede ser derivada hacia otro agente o instancia que responderá mejor a sus necesidades.
- Acompañamiento: El acompañamiento es una relación de ayuda y seguimiento de cierta continuidad que permite a niños/as tomar decisiones, utilizar recursos, realizar actividades, identificar opciones y establecer vínculos.
- Ocio educativo: Consiste en una intervención realizada durante el ocio y el tiempo libre de niños/as que, siendo recreativa y gratificante, logra mediante una relación de ayuda, la adquisición y desarrollo de capacidades, actitudes y valores para la vida.
- Capacitación para la expresión y participación: Supone la generación y dinamización de oportunidades reales para que niños/as puedan manifestar opiniones, trasladar propuestas, tomar decisiones, asumir responsabilidades, gestionar o cogestionar,... y ejercer de algún modo el control sobre los servicios y otros ámbitos relevantes de sus vidas.
- Apoyo a la creación y producción: Generación y dinamización de oportunidades

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

reales para que niños/aspuedan desarrollar y visibilizar actividades y proyectos en los que se potencie y canalice su capacidad creativa y productiva.

4.- Helburuak

4.1.- Helburu nagusiak

Hauek dira haurrentzako zerbitzuaren helburu nagusiak:

- Herriko 4-11 urte bitarteko haurren zerbitzura dagoen egitura erreferentziala izatea, hurbilekoa, gertukoa eta jarraitua.
- Haurrak eskubide osoko herritar eta eskubideen subjektu direla aitortzea, beraien izaera eta nortasuna zein testuingurutan eratzen den kontuan izanik.
- Esku-hartzeko espazio desberdinak, eragina dutenak eta haurren beharretara egokituak sortzea, osagarriak direnak eta beste zerbitzuetan eskaintzen dena konpentsatzen dutenak.
- Haurrek aisialdiaz gozatzea era aktiboan, partaidetzazkoan, sortzailean eta osasungarrian.
- Haurren artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.
- Nesken eta mutilen arteko aukera-berdinatsuna bermatzea.
- Haurren artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea, eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Parte hartzeko kultura aktibo eta arduratsua sortu eta hedatzea, haurrak komunitateko parte eta subjektu aktiboak izan daitezen.
- Haurrei arreta emateko sareko lan-sistema komunitario batean parte-hartzea.
- Haurren aisialdia bermatzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sortzekoak ahalbidetzea.
- Haurrez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea.
- Antolakuntza mailan, nahiz arlo tekniko-profesionalean, beharrezkoak diren betebeharrei eta baldintzei erantzutea, haurtzaroari arreta egokia emateko eta kalitatezko esku-hartzea garatzeko.
- Haurtzaroari arreta emateko beharrei erantzutea, horretarako definitu diren ekintzen programazioari erantzun globala eta estrategikoa ematea, eta hori faseetan planifikatzea.
- Nerabeentzako zerbitzuarekin elkarlanean,

4.- Objetivos.

4.1.- Objetivos principales

Los principales objetivos del servicio a la infancia son:

- Disponer de una estructura referencial, cercana y continuada al servicio de los niños y niñas de 4 a 11 años de la localidad.
- Reconocimiento de los niñas/os como ciudadanos de pleno derecho y sujeto de derechos, en función del contexto en que se constituya su naturaleza e identidad.
- Generar espacios de intervención diferentes, influyentes y adaptados a las necesidades de los niños y niñas, complementarios y compensables con lo que se ofrece en otros servicios.
- Que los niños y niñas disfruten del tiempo libre de forma activa, participativa, creativa y saludable.
- Favorecer el conocimiento de la diversidad entre los niños y niñas y la aceptación de lo diferente.
- Garantizar una igualdad de oportunidades entre chicas y chicos.
- Fomentar el uso habitual del euskera entre los niños y niñas y favorecer que se sientan a gusto en ello.
- Crear y difundir una cultura participativa activa y responsable para que los niños y niñas sean parte y sujetos activos de la comunidad.
- Participación en un sistema comunitario de trabajo en red de atención a la infancia.
- Posibilitar formas diferentes, estimulantes y creativas de garantizar el ocio infantil.
- Crear y compartir con los profesionales de otros recursos y sistemas que atienden a los niños y niñas, formas adecuadas y eficaces de atenderlos.
- Responder a las obligaciones y condiciones organizativas y técnico-profesionales necesarias para dar una atención adecuada a la infancia y desarrollar una intervención de calidad.
- Atender las necesidades de atención a la infancia, dando una respuesta global y estratégica a la programación de las acciones definidas para ello, planificándolo en sus diferentes fases.
- Colaborar con el servicio de adolescentes en las transiciones de la infancia a la adolescencia.

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

haurtzarotik nerabezaroko trantsizioak egiten laguntzea.

4.2.- Helburu zehatzak

Helburu nagusiak kontuan hartuta, tokiko errealitatera egokitutako helburuak:

- Haurrak aisialdiaz era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Haurrentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitzeko gune aproposa eta aukerak eskaintzea, adin berekoekin zein lan taldeko helduekin.
- Eguneroko jardunean generoaren ikuspegia txertatzea neska eta mutilen arteko benetako berdintasuna bultzatzeko xedez.
- Haur etorkinen parte hartzea eta inklusioa sustatzea.
- Behar bereziak dituzten haurrek zerbitzuak erabiltzeko aukera erraztea.
- Aisialdia euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea eta euskal kultura sustatzea (Zerbitzua eta honen eskaintza euskaraz izatea).
- Gune euskalduna sortzea eta denbora librean euskararen erabilera sustatzea.
- Gure kultura ezagutu eta begirunez hartzea.
- Haurrak Andoaingo herritar aktibo izateko, bertako bizi ohituretan eta jardueretan txertatzea.
- Haurren parte hartze aktiboa eta askea bultzatzea, bai zerbitzuan (maila guztietan) eta baita auzo eta herri mailan ere, bakoitzak bere interes eta ahalmenen arabera.

4.2.- objetivos específicos

Teniendo en cuenta los objetivos principales, objetivos adaptados a la realidad local:

- Que los niños/as disfruten del tiempo libre de forma activa, participativa, creativa y saludable.
- Ofrecer un espacio y oportunidades para la construcción de relaciones personales significativas para los niños y niñas, tanto de la misma edad como de personas adultas del grupo de trabajo.
- Incorporar la perspectiva de género en la práctica diaria con el objetivo de promover la igualdad real entre chicas y chicos.
- Promover la participación e inclusión de los niños y niñas inmigrantes.
- Facilitar el acceso a los servicios de los niños y niñas con necesidades especiales.
- Garantizar el derecho a vivir el tiempo libre en euskera y fomentar la cultura vasca (servicio y oferta en euskera).
- Crear un espacio euskaldun y fomentar el uso del euskera en el tiempo libre.
- Conocer y respetar nuestra cultura.
- Integrar a los niños y niñas en sus hábitos de vida y actividades como ciudadanos y ciudadanas activas de Andoain.
- Promover la participación activa y libre de los niños y niñas, tanto a nivel de servicio (a todos los niveles) como a nivel de barrio y pueblo, en función de sus intereses y capacidades.
- Impulsar el trabajo en red con los agentes y servicios del municipio y del entorno que trabajan con los mismos grupos de edad.

5.- Hartzaileak

5.1.- Ludoteka:

5.1.1.- Hartzaile zuzenak:

4-11 urte bitarteko (biak barne) haurrentzat zuzenduta dago. Haurren zerbitzuak modu berezian lan egingo du haur-izaera desberdinei arreta emateko eta

5.- Destinatarios

5.1.- Ludoteca

5.1.1.- Destinatarios directos:

Dirigido a las niñas y los niños entre 4 y 11 años (ambos inclusive). El Servicio para la infancia trabajara de manera específica para ofrecer una atención a las

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

bere jardueran eta ekipamenduan gehienentzako tokia egon dadin.

Bi adin-tarterekin lan egingo da: 4-7, 8-11. Adin tarte bakoitzari egokitutako eskaintza egingo da.

Zerbitzuak bere izaera publiko eta unibertsala bermatu ahal izateko, etorritakoak eta etorri gabekoak kontuan izanik lan egingo du; eta ekipamendutik at, herriko beste espazioetan ere presentzia izan beharko du.

5.1.2.- Zeharkako hartzaileak

Haurrez gain, zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat hartuko dira haurren heziketaz arduratzen diren pertsona helduak eta profesionalak: gurasoak eta familiak, hezitzaileak, irakasleak, besteak beste.

5.2.- Udaleku (Goazen jolastera):

5.2.1.- Hartzaile zuzenak

Andoaingo 3 eta 8 urte bitarteko (biak barne) haurrentzat zuzendutako uztaileko aisialdi eskaintza da, hots, HH2tik LH2. mailara bitartekoak, biak barne.

Bi txandetako bakoitzean gehienez 264 haur inskribatu ahal izango dira, eta txanda bakoitzean gehienez 24na talde eratuko dira. 12 haur baino gehiagoko talderik ezin izango da eratu – Sustapen Ekonomikoa, Enplegu aeta Gazteria lansailak espresuki besterik baimendu ezean-, eta zenbat eta adin txikiagoko haurrak izan orduan eta haur kopuru txikiagoko taldeak osatzen saiatuko da esleipenduna.

Plaza guztiak beteko ez balira, Andoainen erroldatuta ez daudenek ere izango lukete parte hartzeko aukera.

5.2.2.- Zeharkako hartzaileak

Haurrez gain, zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat hartuko dira haurren heziketaz arduratzen diren pertsona helduak eta profesionalak: gurasoak eta familiak, hezitzaileak, irakasleak, besteak beste.

6.- HBAZ zerbitzuaren prestazioari buruz. Zerbitzua ematea

diferentes identidades infantiles, de tal forma que en su actividad y equipamiento haya cabida para la mayoría.

Se trabajará con dos tramos de edad: 4-7,8-11. A cada grupo de edad se habrá de realizar una oferta acorde.

Para garantizar el carácter público y universal del servicio se trabajará teniendo en cuenta tanto a los presentes como a los ausentes; y además tendrá presencia en otros espacios del municipio presencia, fuera del propio equipamiento.

5.1.2.- Destinatarios indirectos:

Aparte de los/as niñas/os, a pesar de no ser usurarios/as directos, se considerarán como tal a los/as adultos y profesionales encargados de la educación de los mismos/as: padres y familia, educadores y profesores, entre otros.

5.2.- Udalekus (Goazen jolastera):

5.2.1.- Destinatarios directos:

Es un servicio ofrecido entre junio y julio destinado a las niñas y los niños de Andoain con edades comprendidas entre los 3 y los 8 años (ambos inclusive), es decir, que estén matriculados entre 2º curso de educación infantil y 2º de educación primaria, ambos inclusive.

Podrán inscribirse un máximo de 264 niñas/os y como máximo se podrán formar 24 grupos. No podrán formarse grupos de más de doce personas, y el adjudicatario intentará formar grupos aún más pequeños cuanto más corta sea la edad de los niños/as del grupo.

Si no se cubriesen todas las plazas, tendrán derecho de acceso aquellas niñas/os no empadronados en Andoain.

5.2.2.- Destinatarias/os indirectos:

Aparte de los/as niñas/os, a pesar de no ser usurarios/as directos, se considerarán como tal a los/as adultos y profesionales encargados de la educación de los mismos/as: padres y familia, educadores y profesores, entre otros.

6.- Sobre la gestión del SPI. Prestación del servicio

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Zerbitzuaren eskaintza Udalak eta haurrentzat ezarri dituen helburuak lortzera bideratuko da.
Haurrentzako zerbitzuaren arduradun nagusia Andoaingo Gazteria saila da; zehazki, Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria saileko zinegotzia eta udal teknikaria. Erakunde esleipendunak udal-arduradunek zehaztutako orientabide eta arauak beteko ditu.

Haurrentzako zerbitzua autonomiaren eta erantzukizunaren sortzaile izan behar du. Bide horretan, haurrak zerbitzuaren parte izan behar dira; parte hartzea ez da mugatuko beren interes eta nahiak adieraztera, baizik eta, mailaz maila, zerbitzuak antolatzeko fase guztietan (planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea) parte har dezaten sustatuko da.

Haurrentzako zerbitzuaren kudeaketan bi lan-eremu bereiztuko dira, alde batetik arreta zuzena, hau da, haurrekin egin beharreko esku-hartzea eta zerbitzua eremu komunitarioan garatzea, eta, beste aldetik, zeharkako arretaren barruan, funsatzea, planifikazioa, koordinazioa eta antolaketa.

6.1.-Zuzeneko arreta

Andoaingo haurrentzako zerbitzuak beren haurrei behar bezalako arreta eman nahi die eta hori egiteko modu egokiak sortu eta mantendu behar ditu.

Haurrentzako zerbitzua hezteko pentsatutako zerbitzua da, harremana sortzeko eta garapena sustatzeko. Esku-hartzeko espazio desberdinak, eragina dutenak eta haurren partaidetza sustatzen dutenak sortuko dira. Haurrentzako zerbitzuan, beste zerbitzuetan eskaintzen dena osatu eta konpentsatuko da. Horretarako egokitutako ekipamenduan eta herriko beste espazioetan – hala nola, kalean- lan hezitzailea egingo da. Haur-izaerei eta haien beharrei arreta emateko sareko lan-sistema komunitario batean parte hartuko da eta esku hartzerakoan kontuan izan beharko da:

- Haur guztiez ikuspegi normalizatzaile batetik arduratzea.
- Herrian eta komunitatean parte hartzea eta dinamizatzea.
- Beste sistema batzuekin eta haurrez arduratzen diren profesional desberdinekin sare-laneko

La oferta del servicio estará dirigida al cumplimiento de los objetivos propuestos por el ayuntamiento en relación con los/as niñas/os. El responsable principal del servicio SPI es el departamento de promoción Económica, Empleo y Juventud; más concretamente, el/la concejal del departamento de Juventud y el Técnico municipal adscrito al mismo. El adjudicatario seguirá los dictados de los responsables municipales en lo que a orientación y normativa del servicio respecta.

Este servicio que se dirige a los/as niñas/os tiene que fomentar valores como la autonomía y la responsabilidad. En esa vía el/la niño/a ha de ser parte del servicio; la participación no se ha de circunscribir a la mera expresión de los intereses y deseos, más bien, se fomentará la participación en los diferentes niveles de organización del servicio (planificación, ejecución y evaluación).

En la gestión del servicio que nos ocupa se diferenciarán dos ámbitos de actuación. Por una parte estará la atención directa, es decir, la intervención directa con los/as niñas/os y el desarrollo del servicio en el ámbito comunitario y, por otra parte estará la atención indirecta que habrá de aglutinar la fundamentación, planificación, coordinación y evaluación del servicio.

6.1.-Atención directa

El servicio para niñas/osde Andoain pretende ofrecer un servicio de atención acorde a los/as mismos y, para ello ha de crear y mantener unas modos y maneras lo más adecuadas para tal fin.

El servicio para la infancia es un servicio pensado para educar, para crear relación y fomentar el desarrollo. Se propondrán espacios diferentes de intervención, que fomenten la participación de los/as niñas/os y que tenga influencia en los/as mismos/as. Con el presente servicio , se completará y complementará lo que a través de otros servicios se ofrece a nuestros/as niñas/os. Para todo ello se llevará a cabo una labor educativa tanto en el equipamiento habilitado al efecto como en otros espacios del muncipio (en la calle, ...). Con el objeto de responder al carácter infantil y a las necesidades de los mismos/as el servicio será partícipe del sistema de trabajo en red a nivel comunitario y a la hora de intervenir habrá que tener en cuenta:

• Atender a todos los niños y niñas desde una perspectiva normalizada.

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

sistema eragikor bat partekatzea.

- Desberdintasun sozialek haurren bizitzetan duten eragina arintzeko jardutea.

Zerbitzuaren zuzeneko arretak, alde batetik profesionalek garatutako hezkuntza esparru egokitu, proaktibo eta integratzailea izango du ardatz; eta, bestetik izaera komunitariodun garapena proposatuko du. Esku hartzea jarraitua izango da, hezkuntza prozesuen jarraipena bermatuz.

Harreman hezitzailea esku-hartzearen funtsezko tresna izango da. Harreman hori enpatikoa izango da, elkarrenganako konfiantzan oinarrituta. Hezitzailea prest egongo da unean uneko laguntza emateko nahiz bidean laguntzeko. Trantsizioaz arduratuko da: "haurtzarotik nerabezaroko trantsizioa". Zailtasun egoeran dauden haurren parte hartzea ahalbidetuko da.

Aurrez azaldu den moduan, zerbitzuak ondorengo ekintza-arloak eskainiko ditu:

- Informazioa: haurrei eta beren familiei esparru edo sistema batzuetan (kultura, hezkuntza, kirola, gizarte-zerbitzuak, osasuna, etab.) eskura dituzten baliabideak eta aukerak eskainiko zaizkie. Eskainitako informazioa, behar adina, eraginkortasunez eta modu antolatu eta adierazgarrian emango da.

  Bestalde, komunikazio-eremuetan haurren ahotsa agertzea, haien iritzia entzuna eta kontuan hartua izateko lan egingo da.

- Orientazioa: haurrei laguntza emango zaie bizitzako esparru ezberdinetan garatzeko, dituzten aukerak ezagutzeko eta erabakiak hartu ahal izateko. Haurren beharrei hobeto erantzungo dion beste eragile batengana bideratzeko ekintza ere kontuan hartuko da.
- Bide-laguntza: haurrei laguntza eskainiko zaie erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak eratzeko garaian.
- Aisia hezitzailea: haurrek beren astialdian ondo pasatzearekin batera, hezkuntza-helburuak lortu

• Participación y dinamización local y comunitaria.
• Compartir un sistema operativo de trabajo en red con otros sistemas y con los diferentes profesionales que atienden a los niños y niñas.
• Actuar para paliar el impacto de las desigualdades sociales en las vidas de los niños y niñas.

La atención directa del servicio tendra como fundamento, por una parte, un espacio educativo adecuado, proactivo e integrador desarrolado por los/as profesionales y, por otra, propondrá el desarrollo del carácter comunitario del mismo. La intervención será continua , apoyando de manera continuada el proceso educador.

La relación educativa se contempla como una herramienta básica del proceso de intervención. Dicha relación será empática, basada en la confianza mutua. El educador ha de estar siempre dispuesto tanto para ayudar como para acompañar en dicha ayuda. Se ocupará de la transición: "de la transición de la niñez a la adolescencia". Se potenciará la participación de los/as niños/as con más dificultades y carencias.

Tal y como se ha explicado anteriormente, el servicio ofrecerá las siguientes áreas de actuación:

• Información: a los niños y niñas y a sus familias se les proporcionarán los recursos y oportunidades a los que tengan acceso en determinados ámbitos o sistemas (cultura, educación, deporte, servicios sociales, salud, etc.). La información ofrecida será proporcionada de forma suficiente, eficaz y organizada y representativa.

Por otro lado, se trabajará para que la voz de los niños y niñas aparezca en los espacios de comunicación, su opinión sea escuchada y tenida en cuenta.

• Orientación: se ayudará a los niños y niñas a desarrollarse en los diferentes ámbitos de la vida, conocer sus posibilidades y poder tomar decisiones. También se tendrá en cuenta la acción de derivar a otro agente que mejor responda a las necesidades de los niños y niñas.
• Acompañamiento : se ofrecerá ayuda a los niños y niñas a la hora de tomar decisiones, utilizar recursos, realizar actividades, diferenciar oportunidades y establecer vínculos.
• Ocio educativo: al tiempo que los niños y niñas se divierten en su tiempo libre, se pretende alcanzar los objetivos educativos, es decir, trabajar las capacidades, actitudes y valores para la vida.

ESKUa5621ce7-e185-4b56-bb25-813227b36fcb

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

nahi dira, hau da, bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak lantzea.

- Adierazpeneko eta partaidetzarako bideak: benetako aukerak sortu eta dinamitzatuko dira, haurrek beren iritziak adierazi, proposamenak egin eta erabakiak har ditzaten.
- Sorkuntzarako eta produkziorako bideak: haurren sormena eta produkziorako gaitasuna sustatu eta bideratuko da. haurrei interesatzen zaizkien jarduerak eta proiektuak garatzeko aukerak sortuko dira.

Haurren interes eta gogoak azaleratu eta landuko dira zerbitzuan eta beraien parte hartzea bilatuko da zerbitzuko eskaintzaren antolaketa fase ezberdinetan. Haurren adinari egokitutako programazioak eskainiko dira

